

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:





Funtsezko baliabideak negozioak funtziona dezan konpainia batek izan behar dituen baliabideak dira. Baliabide fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak biltzen ditu. Berezkoak, errentan hartutakoak edo funtsezko aliatuengandik eskuratutakoak izan daitezke.

Gailu elektronikoen aldetik, enpresako telefono mugikorra dugu; sare sozialen kudeaketarako eta deiak jasotzeko eta egiteko. Portal de Gamarra kalean, Gasteiz (Alaba) alokatutako lokal txiki bat daukagu ofizina bezala, 27m² -koa, hemen gure dokumentuak, ordenagailuak, mahai handi bat aulkiekin, enpresako telefonoak, inprimagailu bat eta abar ditugu.

Giza-baliabideei dagozkionez, gure enpresan lau pertsona gara eta bakoitzak bere rola eta zeregina izango ditu. Gutako bat, sare sozialen kudeaketaz arduratuko da, egunero publikazioak egiten eta publizitateak partekatzen, engagement (marka baten eta bere audientziaren artean sortzen diren komunikazioetan ezartzen den konpromisoa zehazteko erabiltzen da) ona mantentzen dela zihurtatuz. Beste bat, finantzetaz arduratuko da, honi buruz ezagutzak dituelako. Hirugarrenak, giza-harremanetan lan egin izan du iraganean eta bere rola enpresan hori da, bezeroen deiak kudeatzea, zalantzak eta arazoak argitu eta webguneko galderak erantzutea. Azkenik, beste antzeko enpresetan esperientzi laborala duen gutako batek, komertzialaren rola beteko du, hau da; inbertsoreak lortzen eta beste enpresekin harremanetan arduratuko da, baita ere hilabeteen behin *Velquer* laborategietara eta gure produktua salmentan jartzen duten enpresetara (*Eroski*, *Primor*, *El Corte Ingles*...) joango da jarraipen bat egiteko. Baita ere, gure produktuaren iruzkinen jarraipena egingo du, arazoren bat dagoen jakiteko.

Baliabide intelektualen atal hau ere garrantzitsua izango da. izan ere *DryNGo*-ean, gure enpresa patentatu dugu eta gure marka erregistratu dugu ere, inork gure ideia ez kentzeko.

Gure enpresaren hasierako inbertsioa martxan jartzeko 20.000 € beharko ditugu, eta erabili ditugun finantza baliabideak, lauron aurrezkien portzentai bat izan da, lauron artean behar dugunaren 5.000 € jarriko ditugu. Beste aldetik, bazkide kapitalista (enpresako kapitalera ekarpenak egin dituen bazkidea) bat lortu dugu, eta berak, beste, zerren %25a inbertituko du gure produktuan, hau da, beste 5.000 euro eta beste 2.000 € aparte atara daitezken arazoentzako, horrela, 7.000 euro inbertituko ditu. Urte amaieran, gure irabazien portzentai bat eramango du, gutxi gora behera %15. Baina diru gehiena, geratzen diren 10.000 € , *Kutxabank* bankuari mailegu bat eskatuta lortu izan dugu. 5 urte ditugu itzultzeko, 190 € inguru hilabetero eta guztira 11.000 € inguru.